



BARREN

TOKIKOM

# Wuhango koronabirusa gertutik

Ion Sanchez Rovira



**10 EGUN KIA**  
ESKAITZA ERREPIKAEZINAK OTSAILA 6-17



Hibridoak barne



The Power to Surprise

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa, 1  
Eibar. Gipuzkoa

[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

Tel.: 943 70 70 33



▣ **Pedro Otaegi**  
 ▣ **Irati Manzanos**  
 ▣ **Uxue Etxeberria**  
 ▣ **Unax Esnaola**



**Pedro Otaegi, Irati Manzanos, Uxue Etxeberria eta Unax Esnaolak joan zen urtean Feel My Way Kooperatibak antolatutako udarako atzerriko bidaietan parte hartu zuten.**

▣ **Uxue, zuretzako zer izan zen Feel My Wayn Europako Interraila?**

Aukera paregabea izan zen jende berria ezagutzeko, munduko mila tokitakoak zein euskaldunak. Era berean, leku ezberdinei eta kulturei buruz ikasteko eta ez aspertzeko modu berri bat bezala deskribatuko nuke. Goizean Venezian, eta arratsaldean Pragan egotea sekulakoa izan zen, baina egia esan, orain bidaitik gogoratzen dudana ez dira lekuak, baizik eta taldean bizi izan genituen anekdotak.

▣ **Bidaiatzera zindoazela pentsatu, eta azkenean beste gauza bat izaten amaitu zuen. Jar dezakezu honen adibiderik, Irati?**

Egia esan bai, nire asmoa bidaiatzea eta leku ezberdinak bisitatzea zen. Dena dela, jende ezezagunarekin elkarbizitzean aurreritziak ahaztu eta uneoro ni naizen bezalakoa izatea lortu nuen. Horri esker, gainontzekoek ere horrela jokatu zuten nirekin. Talde txikia izatean eta 15 egunez elkarrekin horrenbeste denbora igarotzean, une berezi asko sortu genituen eta elkarrengandik ikasteko aukera eman zigun horrek. Inoiz ez ditut ahaztuko trenean izandako elkarrizketa sakonak eta egingandako barreak!

▣ **Zure taldearen kasuan, Unax, espero ez zenuen zer egin zenuten?**

Orokorrean espero ez nuen zerbait izan zen bidaiia. Amsterdamen geundela begiraleek naturarekin konektatuko genuela esan ziguten eta gu segituan hasi ginen gure teoriak asmatzen: mendira joango ginela, zoologiko batera... Azkenean, inork espero ez genuen plana egin genuen! Baserri antzeko leku batera joan ginen, eta bertan ahuntz pila bat zeuden. Guztiok bisita bat izango zela pentsatu genuen edo baserriko lan batzuk egiten jarriko gintuztela, baina, berriz ere, inork ez zuen asmatu. Une horretatik 20 minutura andre bat etorri zitzaigun eta ahuntzekin yoga egiteko prest al geunden galdetu zigun. Han egon ginen ahuntzez inguratuta yoga egiten.

▣ **Bidai esperientzia honek zein eragin izan du zugan, Uxue?**

“Inoiz ez ditut ahaztuko trenean izandako elkarrizketa sakonak eta egingandako barreak!”

Bidaia hastean banekien ez zela beste udalekuen berdina izango, baina gehienbat itzultzean konturatu nintzen hamabost egunen ondoren nire burua eta ingurua beste begi batzuekin ikusteko gai nintzela. Elgoibartik irten, motxilero eran bidaiatu, horrenbeste erronkei taldean aurre egin... Benetako talde-lana eta bizikidetzaz esperimintatzeko aukera izan nuela esan dezaket.

▣ **Eta azkenik, Pedro, pertsona bat Feel My Wayko esperientzia batean apuntatuko balitz, zer esango zenioke?**

Lotsak etxean uzteko eta aukera aprobetxatzeko! Ni bakarrik joan nintzen eta beldur pixka bat banuen, baina Feel My Wayko begiraleak oso gertukoak izan ziren uneoro, eta beti egon dira laguntzeko prest. Esan dezaket taldeko kide bat gehiago izan zirela begiraleak. Behin eta berriz itzuliko nintzateke, eta edonori gomendatuko nioke! Datorren astelehenean egingo dute gainera informazio bilera Elgoibarren, arratsaldeko 19:00etan kultur etxeko hitzaldi gelan. Nora izango da arduraduna, 644 523 647 da bere telefono zenbakia. Animatu zaitzete!!

Ezagutu gure *Ginkanak!*



 15 eguneko Interraila European zehar  
 AEBetan ingeles murgiltze-programa



T. +34 678 697 549

nora@feelmw.com

www.feelmw.com

 Feel My Way
  @feelmw



## Euskaraldiaren bigarren edizioa

### ENTITATEEI AZALTZEKO AURKEZPEN KOLEKTIBOAK

700 entitate inguru daude Elgoibarren, eta gure nahia da ahal den entitate gehienei Euskaraldia aurrez aurre aurkeztea. Banaka edo taldean, baina aurrez aurre. Entitateek Euskaraldian nola parte har dezaketen azalduko dugu aurkezpenetan; zeintzuk parte har dezaketen; parte hartu nahi dutenek egin beharrekoa. Ariketa erraza da, bai ulertzeko eta baita egiteko ere, baina komeni da azalpenak aurrez aurre eta ondo ematea.

Hauek dira, momentuz, egingo ditugun aurkezpen sektorialak:

SEKTOREA	EGUNA / ORDUA	TOKIA	ENTITATE-KOPURUA
Hezkuntza mundua	Martxoak 11 / 10:00	Aita Agirre kulturgunea	16
Elkarteak eta gizarte mugimenduak:			103
▶ Kultur elkarteak	Martxoak 16 / 18:00	Aita Agirre kulturgunea	25
▶ Kirol elkarteak	Martxoak 23 / 18:00	Aita Agirre kulturgunea	18
▶ Bestelako gizarte mugimenduak	Martxoak 30 / 18:00	Aita Agirre kulturgunea	60
Industria mundua	Martxoak 31 / 9:00	IMH ikastetxea	171

Oharra: hiru sektore horiekin batera, Udala eta Udalaren arduran dauden entitateak (8), merkataritza eta ostalaritzari lotutakoak (27), eta industria ez diren bestelako enpresak dauzkagu (108). Beste sistema bat baliatuko dugu hiru sektore horietako entitateei Euskaraldia aurkezteko.

▶ Euskaraldia ariketaren bigarren edizioan beste urrats bat emango dugu: norbanakoekin batera, entitateek ere parte hartu ahal izango dute. Izan ere, entitateetako hizkuntza-ohiturek zuzenean eragiten diete bertako kideei, eta horregatik animatuko ditugu entitateak *ariguneak* identifikatu eta Euskaraldian izena ematera.

▶ ARIGUNEA: euskaraz lasai jarduteko taldeak edo guneak izango dira. Talde edo gune horietako kide guztiek ulertuko dute euskara, eta gehiengoak erabakiko du *arigune* bat sortu nahi duen ala ez.

▶ Norbanakook ordu asko pasatzen ditugu entitateetan, lanean batez ere, eta horregatik da garrantzitsua entitateetan euskaraz egitea. Entitateetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa proposatuko digu Euskaraldiak bigarren edizioan.





## Herenegun 10, datorren urtean 13

gelesez, berak Moskun 1980ko hamar-kada hasieran martxan jarritako proiektuaren egunerokoa gazteleraz argitaratu zutenetik: *Matemáticas de 3 a 7 años*.

Errusian eta Europa ekialdeko herrialdeetan orohar, tradizio handia izan dute Zirkulo Matematiko deitu izan diren elkarteek. Problema matematikoen gainean pentsatzeak eta eztabai-datzeak taldeko kirol bat praktikatzek adinako sua piz zezakeela pentsatuta, Sobietar Batasunean sortu eta hauspotu zen mugimendu kultural bat da hau, Gerra Hotzeko armatze-lasterketaren testuinguruan hobeto ulertzen dena. Gaur egun zirkulo hauek gero eta ugarriagoak dira munduko beste leku asko-

tan ere. Ez hainbeste gurean.

Normalean Bigarren Hezkuntzatik gorako mailetarako izan ohi ziren elkarte hauek. Alexander Zvonkinek, hala ere, bere seme-alaba eta haien laguntzat horrelako zerbait antolatu zuen. 3 eta 7 urte arteko umeentzat. Eta liburuan eguneroko baten formatuan kontatzen dira bertan bizi izandako abenturak eta kalenturak. Detalle guztiekin.

Hona 1983ko urriaren 3ko saioan landutako problema bat: "Neska batek hala dio: herenegun 10 urte nituen eta datorren urtean 13 egingo ditut. Nola da hori posible?". Nola da hori posible, irakurle zorrotz?

*"Neska batek hala dio: herenegun 10 urte nituen eta datorren urtean 13 egingo ditut. Nola da hori posible, irakurle zorrotz?"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Sushulizazioaren Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloea Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

#### ► AKATSAK ZUZENTZEN

MorADOS aldizkariaren 0. alean akats bat egin dugu: Elgoibarko seme kuttunen txostenean Bernardo Ecenarro izena agertzen da, Teodoro Ecenaroren orde. Barkatu eragozpenak.

Ahal Dugu - Podemos



**LAGUNAK**  
colchonaria textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko ehunak  
topatuko dituzu!

## MERKEALDIA

**%25**eko beherapena  
Quality eta Kol etxeetako  
nordikoetan

**%45**eko  
beherapena umeen izara  
eta ohe estalkietan

**%40**ko beherapena  
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## Otsailaren 17tik aurrera

**AITA AGIRRE** kulturgunean topatuko gaituzue!

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea:  
BARREN komunikazioak  
Atxutxiamaiika Aisialdi Taldea





Etorri eta  
atea zabal-zabalik  
topatuko duzue!



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KulturGunearen Topagunea

## EHBilduk ohartarazi du Urruzunon zabortegia zegoen lekuan lindanoa egon daitekeela, baina lasaitasunerako deia egin du Mankomunitateak

Zaldibarko zabortegian gertatutakoaren ostean, Urruzunon egon zen zabortegian jarri du arreta Elgoibarko EH Bilduk, eta hango lurren kalitatea neurtzeko eskatu dio Udalari, lindanoa egon daitekeelako. EHBilduk esandakoaren arabera, 1999. urtean



Artxiboko irudia

jakin zen hiru urte lehenago material arriskutsua ekarri zutela Urruzunoko zabortegira, eta horren ondorioz lur horietako kutsadura maila zenbatekoa den jakin behar dela uste dute: "Hainbat salaketa eta ikerketa tarteko, 1999. urtean jakin zen lindanoa zegoela bertan. Trapagarandik 200 kamioi ekarri zituzten, eta lindanoa zuten kamioietan ekarritako lurrek. Debabarreneko Mankomunitateak lur horien azterketa egin zuen orduan, eta lindanoa egon bazegoela ondorioztatu zen, maila txikian izan arren". Hogei urte pasatu dira ordutik, eta EHBilduk esan duenez denbora tarte horretan ez da beste neurketarik egin, eta gaur egungo egoera zein den ezagutzea garrantzitsua dela iruditzen zaie. Elgoibarko Udalari eskatu dio gai honen ardurua hartzeko, izan ere, Zaldibarko ezbeharraren harira, herritarren artean gai kutsagarri eta arriskutsuen inguruko kezka zabaltzen ari dela nabarmendu dute, eta gaineratu dute elgoibartarregana ere ailegatu dela kezka hori, erori den Eitzaga auzoko zabortegia Elgoibartik kilometro gutxitara dagoelako eta gai arriskutsuen berri ematen ari direlako hedabideak. "Elgoibarren bertan ere ez gaude gai arriskutsu horietatik salbu", ohartarazi dute. Era berean, Debabarreneko EHBilduk Deba ibaiko uraren kalitatea neurtzeko eskatu dio Ura Agentziari.

### Debabarrenako Mankomunitatearen erantzuna

Iosu Arraiz Debabarreneko Mankomunitateko presidentek esan du Jaurlaritzak eskatutako kontrol guztiak bete dituztela, eta kargu hartu die EH Bildukoei "alarma" sortzeagatik. 1999an egindako hainbat ikerketek eman zituzten balioak "oso-oso txikiak" zirela ziurtatu du Arraizek, "onartutakoa baino 200 aldiz txikiagoa", eta datu guztiak legediaren barruan daudela adierazi du. Team ingurumen ingeniariak enpresak zabortegiko ura eta atmosfera ikertu zituen besteak beste 2.000. urtean, eta haiek emandako datuen arabera, lindanoa egon bazegoen, baina 10 metro lur azpian eta sakabanatuta, beraz, giza osasunerako ez zuela inolako eraginik ondorioztatu zuten. Arraizek esan du gaur egun zabortegia itxita eta zigilatua dagoela. Zabortegia izan zenaren inguruaren kudeaketaz eta kontrolaz Deba Beheko Industrialdea arduratzen da, Mankomunitatea parte delarik, eta Jaurlaritzak eskatutako kontrol guztiak "erabateko zorrotasunarekin" betetzen direla ziurtatu du.

Lindanoa hexakloroziklohexanoaren (HCH) isomero kimiko bat da, iraganean pestizidatzat erabili izan zena. Substantzia organokloratu bat da, eta iraunkortasuna, toxikotasuna, mugikortasuna eta biometatzea ditu ezaugarritzat. Gaur egun, desagerrarazi beharreko material arriskutsu gisa izendatua du Nazio Batuen Erakundeak, eta 2008tik, erabat debekatua dago, produkzioa ez ezik, erabilera ere bai.

### Emakumeentzako Jabetze Eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Elgoibarko Udalak, Berdintasun Sailaren bitartez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Emakumeentzako Jabetze Eskolaren beste edizio bat jarri du martxan, eta dagoeneko zabaldu dute urteko lehen sei hilabete eskainiko dituzten ikastaroetan izena emateko epea.

Bost ikastaro antolatu dituzte momentuz, eta besteak beste, estresa kudeatzeko ikastaroak, mindfulness saioak, autoen oinarriko mekanika, irakurketa talde feministak eta hausnarketa tailerrak antolatu dituzte.

Ikastaroetako plaza kopurua mugatua da, eta zozketa egingo da izena ematen duten emakumeen artean. Elgoibarren erroldatutako emakumeek izango dute lehentasuna. Bestalde, ikastaroa eskaintzeko gutxienez 7 lagunekoko taldea osatu behar da eta plazak betetzen ez badira, izen-emate epea luzatuko da, ikastaroa hasi baino aste bate lehenagora arte. Jarduera guztiak doakoak izango dira. Haurrak zaintzeko zerbitzua eskainiko dute ikastaro guztietan, gutxienez bi haurrek izena ematen badute. Interesatuak otsailaren 25era arteko epea dute izena emateko. Izenemate egiteko bi era daude: Internet bidez ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) helbidean; Identifikazio Sistema Elektronikoa izatea beharrezkoa da) edo aurrez aurre, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Santa Ana 2an, astelehenetik barikura, 7:30etik 15:30era. Informazio gehiagorako Udaleko Berdintasun Sailera jo daiteke: [berdintasuna@elgoibar.eus](mailto:berdintasuna@elgoibar.eus) / 943 741 050.



## Martxoaren 8rako dantzaldi berezia prestatu du Udalak

Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Emakumeen Kontseilua hasi dira Martxoaren 8rako egitaraua prestatzen, eta aurtengoan, hainbat berrikuntza izango dira. Besteak beste, koreografia bat prestatu dute Biraka dantza taldearekin elkarlanean, herritarrek modu aktibo eta ludikoan parte hartzeko helburuarekin. Huntza taldearen *Zer izan* abesti feminista aukeratu dute, eta koreografia Youtubeko <https://youtu.be/4BMCl6Ya-ic> helbidean jarri dute ikusgai, herritarrek ikas dezaten.

Era berean, herriko ikastetxei ekimen honetan parte hartzeko gonbitea egin diete antolatzaileek, uste dutelako interesgarria izan daitekeela ikasleek abestiaren letra ikasgelan aztertu eta lantzea.

Udalak herritar guztiei zabaldu nahi die jarduera honetan parte hartzeko gonbitea. Hitzordua martxoaren 8an izango da, domeka, 14:00ak aldera, Kalegoen plazan.

## 38 liztor-habia ezereztu zituzten iaz Elgoibarren eta lau Mendaron

Gipuzkoako Foru Aldundiak 845 liztor-habia deuseztatu zituen iaz Asiako liztorraren aurkako kanpaina. Elgoibarren eta Mendaron Debemen arduratu da habiak desaktibatzeaz. Elgoibarren 38 kendu zituzten 2019an, aurreko urtean baino hiru gutxiago, eta Mendaron lau, aurreko urtean bezalaxe. Debemenetik jakinarazi dutenez, batez ere eraikinetan egiten dituzte habiak, herrigunean zein baserrietan. Herritarrek udalzaingoa eman beharko dute abisu habiak ikustean, eta habiak deusezteko protokoloa martxan jarriko dute. Pertika luze bat erabiltzen dute habietara ailegatzeko eta barruan pozoia sartzeko. Batzuetan ez dituzte desaktibatuta gelditu diren habia horiek deusezten, eta zeuden lekuan lagatzen dituzte. Hori dela-eta, herritarren abisuak jasotzen jarraitzen dute. Espezie inbaditzaile honen aurkako aurtengo kanpaina negua igarotakoan hasiko dute, Asiako liztorarren bizi zikloa berriro martxan jartzen denean. Nekazal Ikerketa eta Garapenarako Euskal Erakundea (NEIKER) ari da ikertzen liztorren bila-kaera, ugaltzen ala murrizten ari diren jakiteko, besteak beste. Gipuzkoako Foru Aldundia 2012an hasi zen habiak kentzen.

## Gaur zabalduko dute Altzolako Karmen plazako lokala

Bukatu dituzte Altzolako Karmen plazako lokaleko obrak, eta gaur zabalduko dute, 18:00etan. 140 metro koadroko azalera dauka lokala, eta besteak beste, argiztapen berria du, LED teknologiadun fokoak jarri dituzte, egokitutako bi komun eta erradiadore elektrikoak. Elgoibarko Udalak 160.000 euro erabili ditu obra hau egiteko. Lokala egokitzeaz gain, kanpoaldean lorategi-zelai berria prestatu dute, plaza birzolatatu dute eta jarleku berriak jarri dituzte. Udalak auzotarrak gonbidatu ditu gaur arratsaldeko inaugurazio ekitaldira.



## Andoaingo piano jaialdian parte hartu dute Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek

Euskal Herriko 745 ikaslek hartu zuten parte joan zen asteburuan Andoaingo piano jaialdian, eta horien artean Inazio Bereziartua musika eskolako 24 ikaslek. Bakarka eta binaka hartu zuten parte ikasleek, eta guztira, urrezko zazpi domina eta zilarrezko zortzi eskuratu zituzten.

Andoaingo piano jaialdiaren 15. edizioa izan da aurtengoa, eta berezia izan da: aurtengoa, Beethovenen heriotzaren 250. urteurrena da eta haren omenezko kontzertua eskaini zuten.





## ▶ ION SANCHEZ ROVIRA SHANGHAIN BIZI DEN ELGOIBARTARRA

Lan kontuek eraman zuten Txinara Ion Sanchez Rovira. 32 urte dauzka eta Fagor Arrasatek Kunshanen daukan plantako erosketa arduraduna da. Bi urteko lan-kontratua sinatua du enpresarekin, eta beraz, gutxienez 2021eko abendura arte han biziko da, Shanghai, 24 milioi biztanleko hirian. 2019-nCoV koronabirusak 300 lagun gaixotu ditu Shanghai, eta kontrol-neurri zorrotzak ezarriak ditu Gobernuak. Gaitzaren kontrako neurriek egunerokoa aldatu dioten arren, lasai bizi dela nabarmendu du Sanchezek Shanghaiatik idatziz egindako elkarrizketan.

- AINARA ARGOITIA-

# “Txinatarren erantzun zorrotzak eragotzi du koronabirusa gehiago zabaltzea”

♦ 2019-nCoV koronabirusagatik nazioarteko larrialdia ezarri zuten Osasunerako Mundu Erakundeak, eta Txinara eta inguruetara begira jarrita gaude denok. Zein da hor zaudeten elgoibartarron egoera? Zein da zure egunerokoa koronabirusa gaitza agertu zenetik?

Lehenengo kasuak 2019ko abenduan agertu ziren hemen, baina gu geu urte berri txinatarra baino pare bat egun lehenago hasi ginen kezkatzen hemen, urtarrilaren 20a aldera. Urtarrilaren 23an hartu genituen oporrak, eta etxean sartuta egoteko gomendioa egin ziguten Gobernutik. Nire kasuan egunean pare bat aldiz irteten naiz etxetik, etxe



inguruan kafe bat hartzera edo pasia ematera, baina beti ere maskara jantzita. Lanean ere eragina du honek guztiak, jakina, ez baitakigu noiz izango dugun lanera itzultzeko aukera.

♦ **Shanghai 24 milioi lagun bizi zarete, baina kaleak hutsik daudela entzun diegu esaten berriemaile bereziei. Maskarak lortzeko ere zailtasunak daudela irakurri dugu, eta dendetan hasi dela produktuen eskasia. Nola bizi duzue zuek egoera, eta nola daramate hor bertakoek?**

24 milioi lagun bizi dira hirian, bai, baina aurretik hemen bizi diren lankideek ohartarazia ziguten ez larritzeko jende gutxi ikusten bagenuen. Oso jende gutxi da jatorriz Shanghaikoa, eta urte berri txinatarra ospatzera beraien herrietara joanak dira. Egia da, bai, kaleak inoiz baino hutsago ikusi ditugula, baina orain artean «normala» zela esan dezakegu. Gobernuak urte berri txinatarra dela eta oporrak luzatu zituen [otsailaren 9ra arte] eta bi astean inoiz baino jende gutxiago dabil. Maskarak lortzeko arazoan inguruan esan dezakedana da Gobernuak oso forma ordenatuan banatu dituela eta ez dela aparteko arazorik izan. Egia da ezin genduela edozein farmazia edo dendetan sartu eta maskarak erosi, baina lortzeko moduak izan ditugu. Janariari dagokionez ere, arazorik ez; saltoki handietan eta denda txikietan ez dute janari faltarik izan ni eta nire lankideak bizi garen inguruan behintzat, eta etxek etxeko zerbitzuak ere martxan jarraitu du.

Asko harritu nau txinatarren erantzunak. Nire ingurukoak oso beldurtuta daude. Egutero idazten digute esanez egoera oso arrisksua dela eta etxean gelditzeko, maskara erabiltzeko, etab. Batzuek urte berriko oporretako bidaiak ere bertan behera utzi zituzten. Kontuan izan behar da herri txikietako jendea euren herrietatik oso urrun bizi dela eta urtean behin bakarrik ikusten dituztela etxekoak. Beldurra dela-eta familia asko ez dira urte osoan batuko.

♦ **Berrogeialdian daudenei berrogeialdia zorrotz betetzeko esaten entzuten ditugu munduko agintariak, eta aldi berean, ikusi dugu Txinako Gobernuak pertsonen joan-etorriak mugatzen ere. Zein da horko komunikabideek zabaltzen duten mezua?**

Hemengo komunikabideak jarraitzeko aukera handirik ez daukat oraindik. Txinera ikasten hasi naiz, baina oraindik ez daukat behar besteko ezagutzarik komunikabideetan diotena ulertzeko. Dena den, esan beharra daukat Euskal Herriko eta estatuko kateetatik jasotako berriek min handia egin dezaketela. Behin eta berriz ari gara entzuten Txinako Gobernuak gezurretan ari dela eta askoz gehiago direla hildakoak. Eta gu, hemen egonda lasai bagaude ere, mezu horiek gure etxekoak eta lagunak larritzen dituzte. Horko komunikabideetan entzun eta irakurtzen dituzuen berriak ez datoz bat guk hemen bizi dugunarekin. Janaria badaukagu, maskarak badaukagu, ez dugu inor kalean hiltzen ikusi. Gaixotasuna larria da, baina lehenengo egunetatik galdera berdina egiten diogu guk elkarri: zenbat jende hiltzen du gripeak urtero Euskal Herrian edo estatuan?

*“Lehenengo egunetik galdera bera egiten diogu elkarri: Zenbat jende hiltzen du gripeak urtero Euskal Herrian?”*

1.300.000.000 biztanleko eta horren populazio dentsitate handia duen estatu batean populazioaren %0,00004 baino gutxiago dago gaixorik. Medikuek ezagun bat entzun genuen orain dela gutxi esanez bere alaba biak jatorri txinatarra zuten berak hitz egin zezakeela Txinari buruz. Berak zioen askoz hildako gehiago egon direla Txinan eta esaten dutena baino ospitale gehiago eraikitzen ari direla.

Txinako Gobernuak gezurretan ari dela alegia. Zertan laguntzen dute horrelakoek?

♦ **Ez dugu ukatuko, hala ere, horrenbeste lagun maskarekin ikusteak eta horrenbeste kontrol ikusteak han-hemen halako izu moduko bat ere sor dezakeela. Potentzia mundiala da Txina. Nola ari dira kudeatzen beldur logiko hori?**

Onerako harritu nau Gobernuaren eskaeren aurrean herritarrek emandako erantzunak: mundu osoa dabil hemen maskara jantzita eta zabalik geratu diren taberna, supermerkatu eta dendetan tenperatura hartzen digute uneroro. Gainera, behartuta gaude datuak ematera. Eskuak eta zapatak desinfektatzeko produktua ematen digute. Badituzte berrogeialdian dauden lankide batzuk eta oso fin dabilta eskatutako dena betetzen. Ez dakit guk modu berean erantzungo ote genukeen. Nahiz eta 1.000 lagun baino gehiago hil diren, txinatarren erantzun zorrotzak eragotzi du gaitza gehiago zabaltzea. Shanghai, 24 milioi biztanleko hiri batean, 300 kasu baino ez dira eman.

♦ **Oporraldia otsailaren 9ra arte luzatu zuen Gobernuak industriari. Orduan, nekazaritza eremuetan bizi ziren milaka lagun ziren hirira itzultzekoak. Kezka bazegoen. Nolako izan da itzulera?**

Shanghai orain ari gara beldur hori nabaritzen. Bi aste pasatu dira Gobernuak neurri zorrotzak hartzen hasi zenean eta aurreko astetik hona hasi dira taberna, denda edota merkataritza guneak ixten. Gainera etxe atarrietan ere kontrolak orain hasi dira egiten. Lanera itzuliko den jende kopuru handi horren beldur da jendea. Urtarilaren 20tik gaur arte bueltatu diren guztiak Gobernuak duen aplikazio batean eman behar izan dute izena. Dena den, migrazio hauek ekiditeko Txinako Gobernuak berrogeialdian dauzka zazpi probintzia, kasu gehien dituzten zazpi probintziak. Gainera, duela hamar egunetik egutero-egutero bete behar dugu osasun-fitxa. Fitxa hori Giza Baliabideetako zuzendariak jasotzen du enpresetan, eta hark Gobernuari bidaltzen dio. Gure tenperatura, hiritik irten garen edo ez, eta ez tula, buruko mina, etab. izan ditugun aipatu behar dugu fitxa horretan. Oporraldia hilaren 9ra arte luzatu zuen Gobernuak, baina orain, enpresek sekulakoak bete behar dituzte zabaldu ahal izateko: maskara stock-a izan behar dute, eremu guztia desinfektatu behar dute, langile guztien osasun-fitxak bete behar dituzte eta termometroak jarri, eta horrez gain, entzun dugu gaizki sentitzen den jendea isolatzeko gela bat egokitzea ere eskatu dietela. Behin hori guztia betetakoan, enpresek irekitzeko baimena eskatu ahal izango dute, baina ezingo dute zabaldu Gobernuaren teknikari batek baldintza guztiak betetzen dituztela ikuskatu arte.



Lucia Nieto, Sara Bergaretxe, Jone Gurrutxaga eta Begoña Ferro.

# “Patriarkatua habetzen du prostituzioak eta denoi dagokigu kontra egitea”

- Moana War -

## ► JONE GURRUTXAGA, LUCIA NIETO, BEGOÑA FERRO, SARA BERGARETXE ETA MOANA WAR

Euskal Herriko Mugimendu Abolizionistako kidea da Jone Gurrutxaga (Mendaro, 1968). Irailean aurkeztu zuten mugimendua, Bilbon, eta aurkezpenean Hego Euskal Herriko hainbat talde feministak parte hartu zuten, tartean Lanbroa, Betaurreko Moreak, Terapia eta Generoa taldeetako eta Nafarroako Plataformako kideek. Prostituzioa “sexualitate maskulinoaren eredu bortitz eta misoginoaren ondorio” dela diote abolizionistek, eta prostituzioaren kontra ez ezik, pornografiaren eta alokairuko sabelen kontra ere egiten dute. Abolizionismoaz hitz egiteko deitu dugu Gurrutxaga gureru. Ez da bakarrik etorri. Lucia Nieto (1993), Begoña Ferro (1970), Sara Bergaretxe (1971) eta Moana War (1980) plataformakideak etorri dira hitzordura. Moana Warrek, baina, nahiago izan du gordean mantendu eta horregatik ez da ageri argazkian. War luxuzko prostituzioan aritu zen hamar urtez. Oharra: Facebook, Twitter eta Instagram bidez jar daiteke Euskal Herriko Mugimendu Abolizionistarekin harremanetan.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Zerk eraman zintuzten batzera?

**Jone G.:** Prostituzioaren gaia mahai gainean jartzeko beharrak, gizartea kontzientziatzeko beharrak. Jendarte honek ezin du ezizkiariena egiten jarraitu matxismoa, pobrezia eta arrazismoa gurutzatzen diren errealitate baten aurrean. Ezin diegu esan herrialde pobreetako emakumeei herrialde aberatsetako gizonen sexu-nahiak asetzea dela euren patua. Estatu espainiarra Europako Batasuneko lehen postuan dago emakumeen sexu esplotazioari

dagokionez, eta munduko hirugarrena da. Zenbait iturriren arabera, estatu espainiarrean ehun mila emakume prostituitzen dira gaur, eta munduan prostituzio-etxe gehien dituen bigarren herrialdea da. Prostituzioaren negozioak bost milioi euro mugitzen ditu egunero estatu espainiarrean. Milioiak mugitzen dituzten mafiez ari gara hizketan, gizonen eskaerak asetzeko gero eta emakume gazteagoak behar dituzten botere handiko mafiez. Eta eskari horri ez diote beren borondatez prostituzioan ari diren emakumeekin



erantzuten, jakina. Emakumeen salerosketan oinarritzen da negozioa, herrialde pobreetako emakumeen behar, ezjakintasun eta ahulezian. Ez dugu ahaztu behar prostituzioan ari diren emakumeen %95 inguru herrialde pobretuetakoak direla, eta beraz, euren egoera ekonomikoak baldintzatuta daudela hor.

#### ◆ **Azalduguzue. Zer da abolitzea?**

**Sara:** Abolitzea estrategiak definitzea da prostituzioa gure gizartetik desagertu dadin. Ez da prostituzioa debekatzea edo prostituzioan ari diren emakumeak zigortzea. Gure ustez, prostituzioa abolitzeko funtsezkoa da gizarte patriarkal honen sexualitate eredu berrikustea, gizarte batek ezin baitu berdintasuneko izan gizonek emakumeen gorputza eros badezakete. Prostituzioan ari diren emakumeak muturreko indarkeria matxistaren biktima dira, eta erreparazioa merezi dute.

**Lucia:** Gure plataformak prostituzioa amaitu nahi du, baina baita pornografia eta umetokien alokairua ere, emakumeen gorputzak merkantzia gisa erabiltzearen adierazpen muturrekoak direlako. Interneten diru gehien mugitzen duen negozioa da pornografia. Pornografia-orrialdeetan bideorik ikusia taldean egindako bortxaketa batekoa da. Pentsa! Hezkuntza afektibo-sexual onik ez dago gurean, eta pornografia da gure gazteentzat sexura gerturatzeko bidea. Bestalde, sabelak alokatzea debekatuta dago estatuan, baina familia askok atzerriara jotzen dute baliabide gutxi dituzten emakumeen gorputza erostera. Giza trafikoa aldaera modernoa da.

#### ◆ **Ez du borroka erraza ematen zuenak.**

**Begoña:** Badakigu ez dela erraza. Gizartea sentsibilizatu behar dugu aurrea. Herritarrek jakin behar dute zein egoeratan dauden emakume hauek, zelako eskubide urraketak ematen diren, zeinek eusten dion negozio honi eta zertarako. Kontzientzia hartu behar dugu, eta legeak egin. Elkarte feminista batzuk ari dira lege proiektu abolizionista lantzen hemen ere, eta badaude tipo horretako legeak sortu dituzten herrialdeak ere. Prostituzioa erregulatzea ez da inondik inora kontra egitea.

#### ◆ **Zuek aurkezpena egin eta gutxira Euskal Herriko Mugimendu Feministak oharra kaleratu zuen esanez zuen mugimendu hau ez zela zuzenean eurenetik sortu. Oharrea zioten jakitun zirela prostituzioa historikoki mugimendu feministaren korapilo handienetakoa izan dela, baina hala ere, eztabaida hau modu bitarrean baino era konplexuagoan ulertzeko lana egiten dihardutela. Zer diozue?**

**Begoña:** Uste dugu ideologikoki gugandik aldentzeko beharrak eraman dituela adierazpen horiek egitera, baina onartzen ez duguna da esatea ez garela mugimendu feministako kide, ez baita egia. Ni neu lanbroa taldekoa naiz, eta 2000. urteaz geroztik ari gara gu prostituzioa abolitzeko eskatzen. Mugimendu feministaren barruan ikuskera ezberdinekoak gaude, baina gure plataforma ere mugimendu feministatik sortutakoa da. Plataformakide

## “Abolitzea ez da prostituzioa debekatzea eta prostituzioan ari diren emakumeak zigortzea”

- Sara Bergaretxe -

guztiok gara kontzientzia feminista handikoak, bestela nekez izan daitekeelako abolizionista. Patriarkatua zer den jakitea eta emakume eta gizonezkoen arteko botere harreman desorekatuaren kontzientzia izatea

ezinbestekoa da garbi izateko zein sexualitate ereduren kontra ari garen borrokan. Nolanahi ere, egia da mugimendu feministaren barruan badaudela bestela pentsatzen dutenak eta eztabaida handia dagoela, ziurrenik feminismoa ez diren ideologiak nahastu direlako eta eztabaida zikintzen dutelako. Ez gara marko ideologiko beretik ari analisia egiten eta horrek nahasmendu handia dakar.

#### ◆ **Erregulatu ala abolitzeaz aparte zer beste aukerarik dago?**

**Lucia:** Daukagun hau, baina bistan da daukaguna inork ez duela nahi. Prostituzioaren historia eta munduan gertatu dena aztertzea ezinbestekoa da eztabaidan hasteko. Herrialde batzuetan urteak daramatzate prostituzioa arautzen eta ikusi da ez direla helburuak lortu. 2013ko datuen arabera, Amsterdamen prostituzioan aritzen ziren 30.000 emakumetatik 800ek erregulatu dute beren egoera eta Gobernuak ez du lortu kobratu nahi zituen zergak kobratzea. Gauza bakarra lortu dute: negozioa legezkoa nahiz legez kanpokoan indartzea.

#### ◆ **“Prostituzioan ari diren guztiak ez dira gizakien salerosketaren biktima. Gizakiaren salerosketa kontzeptua bera oso europarra da. Prostituzioan ari diren emakume migrante askok badakite zertara datozen, nahiz beti ez dakiten zein baldintzetan jardungo diren”, esan zuen Norma Vazquez Sortzen aholkularitza zerbitzuko buruak orain hurrengo hemen.**

**Moana:** Prostituzioan ari direnak euren gogoz ari diren kontu hori mitoa dela. Asmo bakarra ikusten dut nik afirmazio horren atzean: prostituzioa ez dela gure arazoa esan nahi bat. Egia da prostituzioan dabilzan denak ez direla emakume migranteak, hemen bertako asko ere ari direlako prostituzioan. Ni neu estatu espainiarrekoa naiz eta hamar urte egin ditut mundu honetan, eta esan diezazukedana da sekulakoak ikusi eta bizi izan ditudala eta prostituzioan ari diren emakumeek arazo larriak dituztela: depresioa, droga-mendekotasuna... Nire lankide batek bere burua urkatu zuen. Egin kasu! Zein beste lanbidetan edan edo drogatu behar da bizi duzun errealitateaz ahazteko?

#### ◆ **Nola egin zenuen ihes?**

**Moana:** Kasualitatez egia esan, baina nahiago dut nire kasuaz argibide gehiegirik ez eman. Nik lortu dut mundu horretatik irtetea, baina sufrimendua ez da amaitu. Arazo psikologikoak ez ezik, arazo fisikoak ere utzi dizkit. Prostituzioa ez da kaltebera. Ni ez naiz familia pobre batean jaioa, baina sartu nintzen ahuldade momentu batean behar ekonomikoa nuelako eta zirkulu horretan galdua ibili naiz hamar urtez. Gauza bat laga nahi dut argi: edozein emakumek buka dezake prostituzioan: baita gure herriko nes-

kek ere, orain unibertsitateetara ere ari direlako joaten proxenetak emakume gazte bila. Gaur egun, neska batek jartzen badu sare sozialetan bere argazkia eta lan bila dabilela esan, putazaleen dozenaka mezu jasotzen ditu. Eta beste kontu bat: luxuzko prostituzioan ibili naizen arren, beti bizi izan naiz pobrezia mugan, eta ez dut prostituzioari esker aberastu den emakumerik ezagutu. Aldiz, dozenaka ezagutzen ditut drogen munduan jausi direnak edo depresioan erori direnak eta bururik altza ezinda dabilzitanak. Egunero ahotik lerdea darien gizonek penetratua izatea latza da gero!.

Prostituziora jotzen duten gizonak biolentoak dira, eta emakumeek ezer ezin dute aukeratu, eta are gutxiago ezetzik eman. Putazaleek ez digute galdetzen geure gogoz gauden hor; horrek ez die ardua.

#### ◆ Non jarri beharko genuke begia?

**Begoña:** Feminismoa izan da fokua eskarian jarri duen lehen teoria, hau da putazaleetan, eta uste dugu hori dela bidea. Ordura arte inor ez zen konturatu arazoa ez direla emakumeak, prostituzioa kontsumitzen duten gizonak baizik. Zergatik behar dute gizonek prostituzioa? Zer sexualitate eredu da hori? Nola eraiikiko dugu gizarte berdinzale bat gizonek jarraitzen baldin badute pentsatzen emakumeen gorputzak eros ditzaketela? Begira, gizonek munduko edozein bazterretan taxi batera igo eta jakin dezakete non erosi ahal izango duten emakume baten gorputza eta egin ahal izango duten harekin nahi dutena, diru truke. Emakumeen eskubideen alde horrenbeste lan egin dugun eta egiten dugun herrialdeetan hori existitzeak frogatzen du zein azpiratuak gauden.

**Jone:** Eta hartu gogoan datu hau: estatuan, gizonen %40k kontsumitzen dute edo kontsumitu dute noizbait prostituzioa.

**Moana:** Gehiago ez baldin badira!. Leku askotan prostituzio agentziek dirua ordaintzen diete taxi-gidariei lortzen duten bezero bakoitzeko. Negozio asko ixteko merkantzia gara.

#### ◆ ‘Ezin dugu ezikusiarena egiten jarraitu’, ohartarazi duzue. Axolagabekeria ikusten duzue?

**Lucia:** Txirringularitza lasterketetan ikusten ditugunean emakumeak txirringulariei sariak eta muxuak ematen aztoratu egiten gara, baina prostituzioarekin ez. Ez da erraza ulertzen. Mugimendu feministan beti egin da gogoeta eta beharbada komeni da gogoraraztea. Duela ehun urterako emakume sufragistak hasita zeuden sexualitateari buruz hausnartzen eta sexuen arteko desorekaz hitz egiten. Flora Tristan eta Aleksandra Kollontai sozialista feministek ere esan zuten prostituzioa gizonek emakumeekiko duten botereari eusteko funtsezko erakundea dela. Gero, 70eko hamarkadan, feministek sexu-indarkeriaren aurkako aldarrikapenak kontzeptualizatu zituzten, eta horren barruan, prostituzioa. 30eko hamarkadan, Emakume Libreen Alderdi Anarkosindikalistak prostituzio-liberatorioak sortu zituen, eta bigarren Errepublikak ildo abolizionista jarraitzeko asmoa agertu zuen, baina frankisten estatu golpeak ezerezean utzi zuen dena. Gizarte berdinzalea erai-

## “Prostituzioan ari direnak euren gogoz ari diren kontu hori mitoa da”

- Moana War -

kitzeko derrigorra da prostituzioa abolitzea.

#### ◆ Zein argudiori helden diote erregulatzearen aldekoek zuen ustez?

**Begoña:** Uste dut ideologia post-modernoak kalte handia egin di-

gula. Errelato handiak edo analisi makroak egiten zituzten ideologiak eta joerak amaitu zirenean, XX. mendearen azkenalderan, indar handia hartu zuen joera berri batek: postmodernismoak. Ideologia post-modernoak indibiduan eta eskubide indibidualetan jartzen du begia, analisi makroak alboratu lagata; gizartean gertatzen ari dena ahaztuta alegia, eta beraz, pertsona bakar batek esaten badu prostituzioan bere gogoz ari dela ematen du pertsona horren eskubidea lehenetsi behar dela. Eta analisi neoliberallean, batek erosi nahi badu eta besteak saldu, dena da bale, badakizu!. Hori da daukaguna, baina prostituzioak beste analisi bat egitea eskatzen du. Hitz egin behar da pobrezia feminizazioaz eta botere harreman desorekatuez.

#### ◆ Zenbaitek eskuineko pentsakerekin eta moraltasun handikoekin ere lotzen zaituztete abolizionistak.

**Begoña:** Bai, hori ere badiote gutaz [muturra okertu du]. Gertatzen dena da sexuarekin lotutako dena oso isildua egon dela urte askoan eta orain badagoela sexuak txarrik ez duela esan behar bat. Eta txarrik ez du, jakina. Abolizionismoak ez dauka inolako zerikusirik puritanismoarekin. Ziurrenik, prostituzioaz hitz egiten hasi ziren lehenengo emakume sufragista haiek pentsakera puritanoagoa izango zuten, bere garaiko alabak zirelako, baina ez da gure kasua.

**Lucia:** Eliza bera izan da, gainera, prostituzioa erregulatzearen aldekoena, “okerrenean onena” zela arrazoituta

**Moana:** Prostituzioa ontzat jotzen dute, baina beti ere bestea baldin bada prostituzioan ari dena: pobrea. Nahiko al lukete “lan-bide” hori euren alabentzat? Denok izan ditzakegu arazo ekonomikoak noizbait, baina zeinek animatuko luke alaba prostituzioan sartzera? Eta gehiago: ekonomikoki estu dabilen bikote batean zeinek saldu behar du gorputza? Emakumeak, ezta?. Beste gauza bat ere azpimarratu nahiko nuke: sexuaz ari gara, baina prostituzioak zerikusi gutxi du sexuarekin, biren arteko desioarekin. Prostituzioa gizonek emakumeenganako duten boterea da. Ez dut gogoratu nahi, baina putazaleek eskatzen zizkiguten zerbitzuak kontatuko banituzke hemen oilo larrutan jarriko genituzke irakurle guztiak. Beraien emazteek onartzen ez dizkieten gauzak eskatzen dizkigute guri, ordaindu gabe nekez lortuko lituzketen gauzak. Ez al da adierazgarria? Prostituzioak patriarkatua habetzen du eta horren kontra egitea denoi dagokigu. Prostituzioa erregulatzearen aldekoek galdetuko nieke ia zer duten ni bezalakoei eskaintzeko. Prostitutei entzun behar zaiela esaten dute, baina hortik irteera lortu dugunoi ez digute entzuten. Ni joan naiz laguntza eske eta laguntza eskaini didaten bakarrak mugimendu abolizionistako lagunak izan dira.





Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**H**erriko kaleak txakur kakaz beteta daude: "Lotsa-garria da! Herriko espaloi, kale eta parkeak txakur kakaz beteta daude. Lekueder eta Plaza Txiki inguru horretan egunero daude kaka mokordoak lurrian. Txakur askok gainera, portaletan egiten dute pixa eta sekulako usain txarra uzten dute. Ume aukiekin ibiltzen diren guraso asko ere haserre daude, gurpilak kakaz beteta eramaten dituztelako sarritan etxera. Eta joan zen astean Ikastolako atarian ere sekulako txakur kaka zegoen, umeak eskolara sartzeko orduan. Txakur jabe askok ez daukate gainerako bizilagunekiko inongo errespeturik. Txakurra eduki nahi duenak badaki zeintzuk diren bere betebeharrak, eta bete egin behar ditu. Eta, bestela, isunak jarri behar zaizkie, ea horrela ikasten duten".



**P**edro Mugurutza Etorbideko parkeko eskailera metalikoak oso arriskutsuak dira: "Pedro Mugurutza kalean adinekoek ariketa fisikoa egiteko parke txiki bat dago, eta ariketak egiteko makinaren artean, eskailera metaliko batzuk daude, alde batean eskailera eta bestean aldapa bat dituenak. Ume eta adinekoak ibiltzen dira parke horretan jolasean, eta aldapa hori oso arriskutsua da, euria egiten duenean batez ere. Bustitzen denean labaina jartzen da, eta jendea erori egiten da. Ez labaintzeko gomaren bat edo jarri beharko lukete arrapala horretan".



**J**endeak Kultur Etxeko ate aurrean aparkatzen du: "Udalak Kultur Etxe aurrean zegoen burnizko katea kendu zuen, eta ordutik, auto gidariek ez dute ingurune hori errespetatzen. Jendeak Kultur Etxeraino bertaraino hurbiltzen ditu sarritan autoak, eta eraikinaren kontra aparkatzen dute. Kateak funtzio garrantzitsua zuela iruditzen zait, eta ez legoke gaizki berriz jartzea".

**H**erriko kaleetan argi gutxi dago: "Elgoibarko kaleak oso ilun egoten dira. Goizeko lehen orduan eta iluntzean herriko alde zaharreko kaleetan ez da apenas argirik egoten. Farolak itzalita egoten dira askotan, eta piztuta egonda ere argi gutxi ematen dute. San Anton Egunean bertan erraldoi eta buruhandien kalejiran kaleak oso ilun zeuden. Argiak segurtasuna ematen du".

**M**endaroko Ikastolako patioko argiak zergatik pizten dira 6:00etan?: "Mendaro Ikastolako zaintza zerbitzua 7:30ean hasten da, eta ordura arte ez da umerik egoten ikastolan. Hala ere, argiak goizeko 6:00etan pizten dituzte. Zergatik? Ez litzateke hobe izango umeak eskolara joaten direnean piztea?". Iñaki Agirre Mendaroko alkateak erantzun du argia automatikoki pizten dela iluntzearekin batera, eta 21:00etan itzaltzen dela. Baina erabilzaille batzuk beranduagora arte geratzen direla gaineratu du, Arnokoak adibidez, eta botoia ukitzen dutela, eta programazio automatikoa eten egiten dela. Gero ez badute berriz botoia behar den bezala uzten, argiak piztuta geratzen direla ohartarazi du alkateak. Goizean pizteko ere, berez, 7:15erako dago programatuta. Alkateak esan du argiaren armairuko giltzak aldatu egin dituztela, kontrola hobeto eramateko.

**P**edro Mugurutza etorbidea eta Gabriel Krutzelaegi kalea batzen dituen igogailua hondatuta dago: "Aste honetan gure auzoko igogailua hondatu egin da. Berez bi igogailu daude, eta bakarra hondatu da, baina horrek erabat oztopatzen du erabilera. Eskertuko genuke ondo dabilen igogailuan bertan ohartaraztea beste igogailua hondatuta dagoela. Ume aukiarekin igonintzen martxan zegoen igogailuan, baina bestera iristean ezin izan nintzen jaitsi, igogailua hondatuta zegoelako. Atzera buelta egin behar izan nuen, ume aukiarekin eskailera ezin izan nituelako jaitsi".



Imanol Larrañaga (Elgoibarko Izarra), Maialen Gurrutxaga (Udaleko Berdintasun Saileko zinegotzia), Jon Barandiaran (Ilunberri Achademia), Izaskun Estibaliz (Haizea Emakume Taldea) eta Ibon Serrano (Ilunberri Achademia).

## ▶ XVI. mendeko untzigintzari buruzko hitzaldiarekin hasiko da eguaztenean Aro Modernoari buruzko zikloa

Elgoibarko Izarraren Kulturekintza lantaldeetik sortu den Ilunberri Achademiak 'Aro Modernoa: Euskal Herria mundura zabaltzen' hitzaldi zikloa antolatu du, Euskal Herriak garai hartan izan zuen garrantzia gizarteratzeko. Ibon Serrano eta Jon Barandiaran izan dira egitasmoaren sustatzaileak, eta hitzaldietako bat antolatzeko Haizea Emakume Taldearen eta Udaleko Berdintasun Sailaren lankidetzak izan dute. Lau hitzaldi izango dira guztira, eta datorren eguaztenean izango da lehenengoa. Saio guztiak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 19:00etan.

- AINHOA ANDONEGI -

**OTSAILAK 19:** Lourdes Odriozola Oyarbide: 'Untzigintza XVI. mendean: Atlantikoaren erronka'. XVI. mendean Euskal Herria mundu mailako potentzia bilakatu zen untzigintzan, eta Euskal Herria munduaren erdigunean jarri zuen industria honek. Lourdes Odriozola Oyarbide historialariak azalduko du untzigintzaren funtzionamendua, eta industria horrek izan zuen garrantzi ekonomiko eta soziala jorrateaz gain, aro modernoari bere izaera eman zion merkataritzan, bidaietan, deskubrimendu eta konkistetan izan zuen eragin historikoa ere landuko du.

**MARTXOAK 11:** Amaia Nausia Pimoulier: 'Emakumearen egoera Nafarroako konkistaren testuinguruan'. XVI. mendean Estatu Modernoa sortzen da, botere instituzionalizatu guztiak zentralizatzeko

helburuarekin, prozesu adoktrinatzaila eta diziplinatzaile baten bidez. Emakumea bete-betean egon zen eraso honen jopuntuan, eta gizartean zuen esparru publikoan lekua galdu zuen. Europar orokorra izan zen mugimendu hau Nafarroaren konkistaren testuinguruan kokatuko du hizlariak. Euskal emakume kristau idealaren diskurtso berria, sorgin ehiza, edo usadioz emakumeenak ziren ofizioek jasan zituzten kolpeak ere aipatuko ditu, besteak beste. Hitzaldi hau Haizea Emakume Taldearekin eta Berdintasun Sailarekin lankidetzan antolatu dute.

**APIRILAK 22:** Jose Antonio Azpiazu Elorza: 'Armagintza XVI-XVII. mendeetan: inperio bat sostengatu zuen industria'. Untzigintzarekin batera, Euskal Herria, eta, bereziki, Deba arroa, armagintza industriaren mundu mailako gune

garrantzitsuenetarikoa bilakatu ziren XVI. eta XVII. mendeetan. Hitzaldi honetan, euskal industria honen sistema ekonomiko eta soziala landuko ditu, eta haren eraginak, ondorioak eta argi ilunak ere, aro modernoko inperio handien geopolitikan.

**EKAINAK 3:** Javier Elorza Maiztegi: 'Elkano eta euskal marinela munduari lehen biran'. 2019an 500 urte bete ziren Elkanok munduari lehen biraren abenturari hasiera eman zionetik. Gertaera benetan konplikatu, heroikoa eta gatazkatsua izan zen. Hitzaldi honetan, bidaiaren testuingurua, eta Elkanoren eta bidai honetako gairontzeko marinel euskaldunen nortasuna eta zeregina zein izan zen azalduko ditu Elortzak. Honekin batera, bira honek Aro Modernoan suposatzen zuen aldarraren historiako ere mintzatuko da.



## Ikastolakoen Euskal Inauteriak hasiko du aurtengo mozerro jaia, gaur zortzi

Aurtengo mozerro festa gaur zortzi hasiko da, Elgoibar Ikastolakoen Euskal Inauteriarekin. Urtero bezala, zanpantzarrak, txatxoak, bolantak, kotilungorriak, joaldunak eta mamoxarroak irtengo dira kalejiran, ikastolatik Kalegoen plazara, eta han eskainiko dute dantzaldia. 15:15ean hasiko da ekitaldia (euria egiten badu, ikastolan egingo dute). 17:00etatik aurrera Ludotekako haurrak irtengo dira mozerrotuta, karroza eta guzti. Bezperan batuko dira Ludotekan bertan, karroza prestatzeko. Gauean, berriz, Sinuöseren inauterietako kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da Kultur Etxeko sotoan (23:00).




### Mendaroko saioarekin isildu dira aurtengo santa eskeko koruak gurean

Ohitura duten legez, kale eta baserriak koplatu zituzten zapatuan Mendaron santa-eskeko taldekoek. 50 bat lagun batu ziren guztira, eta goizean goizetik 15:30ak aldera arte ibili ziren kantuan eta eskean, hiru taldetan banatuta. Ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten guztiek Aizpe elkartearen. Guztira, 2.570 euro batu zituzten eskekoek, eta diru horren parte bat Arno Guraso Elkartearentzat izango da. Argazki gehiago ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus).



### '20.000 legoa itsaspeko zaborretan' antzerkia, domekan

Familia giroan ikusteko antzezlanaren taularatuko du domekan Txalo Produzioak konpainiak Herriko Antzokian. 20.000 legoa itsaspeko zaborretan. Itsas munstro izugarri batek alarma guztiak piztu ditu. Bale handiena baino handiagoa, ziztu batean igeri egiten du eta kolore ezberdinetan itxuraldatzen da. Pizti honek ikara eta beldurra eragin ditu itsasoan dabiltzan marinelen artean. 16:30ean hasiko da emanaldia, Herriko Antzokian. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek, 5 euro.



## C.D. Elgoibarko zuzendaritzak denboraldi bukaeran emango dio amaiera bere jardunari

Club Deportivo Elgoibar taldeko zuzendaritza batzordeak iragarri du ekainaren 26an emango diola amaiera bere jardunari, iaz egin zuten urteko batzarrean bazkideen aurrean jakinarazi zutena betez. Gaur egungo zuzendaritza batzordeak 2016ko ekainean hasi zuen agintaldia, 2017ko udara arte Anton Iranzo buru zela. 2017tik hona Jon Basurto izan da futbol taldeko presidentea. Hamabost bat laguneko lantaldea ibili da klubari tiraka. Ardura hartu zutenean zituzten helburuak gogora ekarri dituzte orain, lau urteko lanaren errepaso eginez. Besteak beste, honako helburuak eta erronkak zerrendatu dituzte: lehen taldea jokalaria elgoibartarrez osatzea, emakumezkoen futbola berreskuratu eta bistaratzea, futbol eskola indartzea, inguruko taldeetan zeuden jokalaria elgoibartarrak herrira ekartzea, kirol-taldea ekonomikoki bideragarria izatea, bazkide berriak lortzea, kluba herrira eta herritarrei gerturatzea, eta futboleko euskararen erabilera bultzatzea eta sustatzea. "Horiek eta beste asko izan dira azken lau urteetan eduki ditugun buruhaustak. Gauza asko egin ditugu, badakigu beste batzuk ez ditugula egin eta baita zenbait helburu bete ez ditugula ere", adierazi dute. Edonola ere, nabarmendu dute ilusioa izan dela uneoro zuzendaritza taldearen iparrorratza, eta egin duten lan guztia "intentzio onenarekin" egin dutela, beti C.D. Elgoibarren interesen alde. Egungo zuzendaritza



batzordeak prestutasun guztia azaldu nahi du datozenekin, eta hurrengo denboraldirako planifikazio eta prestakuntza lanak errazte aldera, jakinarazi dute Mintxetako bulegoko ateak zabalik dituztela edozein duda argitzeko. Hortaz, kluba zuzentzeko lantalderen bat prest balego, eurekin harremanetan jartzeko eskatu diete. "Plazer handi bat izan da C.D. Elgoibarreko parte izatea, eta eskerrak ematen dizkizuegu bide honetan lagundu gaituzuen guztioi. Bihotzez mila esker", esan dute agurtzeko.

## Gobike taldeak hamabi txirrindularirekin hasi du denboraldia

Elgoibarko Gobike taldeak hamabi txirrindularirekin ekin dio 2020ko master mailako txirrindularitza denboraldiari, eta elgoibartarrak dira horietako hiru: Iñigo Lariz, Jorge Gonzalez eta Iban Gonzalez. Laudioko XII. Master



Klasikoa txirrindulari lasterketarekin hasi zen denboraldia, otsailaren 8an. 78,8 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta Respalditza (305 metro) eta Garate (285 metro) mendentak izan ziren ibilbideko zailtasun nagusiak. Isidro Garcia txirrindulari kantabriarra gailendu zen, eta tropel nagusiaren buruan gurutzatu zuen helmuga Gobike taldeko Iban Gonzalez Ferro elgoibartarrak, bosgarren postuan, hain justu ere. Gainera Master 30 mailako podiumera igotzea lortu zuen, bigarren egin baitzuen bere kategorian. Ramon J. Garcia elgoibartarra ere lehiatuko da master mailako lasterketetan, Errioxako Bodegas Mazuela Roger Sport taldearekin.

## Jubenilen txirrindulari lasterketa, martxoaren 1ean

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketaren 38. ekitaldia jokatu dute martxoaren 1ean. Jubenil mailan diharduten txirrindularientzako lasterketa izango da, eta 86 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Mintxetatik irtengo dira txirrindulariak 16:00etan, eta helmuga ere Mintxetan egongo da. Iker Barandiaran (Ampo-Ikolan Sports) gailendu zen.





## Elur gutxi Pirinioetan, baina eski gainean gozatzeko adina bai



**M**orkaikok urtean behin antolatzen du mendi eski irteera bat, baina urte guztiak ez dira berdinak eta aurtengoa ez da elur urtea izaten ari Pirinioetan. Joan den otsailaren 8an eta 9an egin zuten mendi-irteera eta mendizaleek Pantikosako Balnearioan dagoen Casa de Piedran hartu zuten ostatua. Handik abiatuta egin zituzten zapatuko eta domekako mendi-irteerak. Azaldu dutenez, zapatuan elur baldintza kaskarrak izan zituzten, baina ez zen oztopo izan bi tontor egiteko: Tablato (2.564 metro) eta Piniecho (2.566 metro). Domekan baldintza hobek aurkitu zituzten Pirinioetako mendietan. Eguraldia lagun zutela, Garmo Negro (3.064 metro.) tontorra egin zuten eta gozatu ederra hartu zuten jaitsieran, udaberriko elur baldintza “zoragarriak” izan zituztelako. “Hala, jaitsiera paregabe batekin eman genion amaiera aurtengo mendi eski irteerari. Urtero bezala, parte-hartzaile guztiek lagun arteko giro ederra goraiatu dute”, azaldu dute mendi taldetik, eta irteerako pare bat argazki bidali dituzte.


## Pirinioetako glaziarren bilakaera eta egoera



Eñaut Izagirre glaziologo elgoibartarrak emango duen hitzaldiarekin amaituko dira, otsailaren 26an, Morkaikok antolatutako natura eta zientzia jardunaldiak (Kultur Etxean, 19:30ean). Izagirre EHuko Geodinamika Saileko kidea izateaz gainera, klima aldaketa ikergai duen Basque Centre for Climate Change (BC3) ikerketa zentroko kidea ere bada. Elgoibarren emango duen hitzaldian Pirinioetako glaziarren bilakaera eta egoera izango du hizpide. Azaldu duenez, Pirinioetako glaziarrek, Europako hegoaldean egonik, baldintza klimatikoaren aldaketekiko oso sentiberak dira. Horregatik, garrantzi handia dute klima-aldaketaren geodierazle gisa. Mendikateko glaziarrek 240 ha-ko azalera hartzen dute gaur egun, duela 150 urte baino % 88 txikiago, eta 1980ko hamarkadatik atzera-egitea azkartu egin da, mendikatean 39 glaziar izatetik egun dauden 19 glaziarretara arte. “Gainera, eskualdeko glaziarren oreka-lerroak (ELA ingelesez) gora egin du altueran, egun 3.080 metro inguruan kokatzen da. Hala, eta glaziar gehienak altuera baxuagoan daudenez, faktore topoklimatikoaren garrantzia esanguratsu bihurtzen da glaziar bakoitzaren kasuan”. Egungo datuak ikertuta eta etorkizuneko joeren iragarpenerekin, Pirinioetako glaziarren patua nahiko iluna dela ikusten dute adituek, eta mende erdialderako desagertzeko zorian egon daitezkeela uste dute.

## Espainiako igeriketa txapelketan hartuko du parte Iker Calvok

Eskola adinekoentzako Espainiako Igeriketa Txapelketa jokatu dute Oviedon, otsailaren 28tik martxoaren 1era bitartean. Bertan lehiatu ahal izateko markak gainditu dituzten igerilariak hautatu ditu Euskadiko Igeriketa Federazioak, eta Iker Calvo Villalobos elgoibartarra da euskal selekzioa ordezkatzeko dutenatariko bat.



Eibar Igerixan taldeko kidea hasi da Espainiako txapelketarako prestatzen, lau lasterketetan lehiatuko baita: 200 eta 400 metroko estilo librekoetan, 100 metroko estilo proban eta 400 metrokoan.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez ere bai.  
☎ 602 490 595 / 612 204 490

Adinekoak zaintzen egingo nuke lanak. Etxeko garbiketaz zein sukaldari lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago.  
☎ 632 344 327

Orduka lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta baita garbiketa lanetan ere. ☎ 602 367 837

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia. ☎ 631 114 125

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Berehala hasteko moduan. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketaz egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.  
☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketaz egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 685 386 485

Adinekoak zaintzeko edo garbiketaz egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 631 489 128

Adinekoak zaintzeko edo garbiketaz egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 638 963 048

Adinekoak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 658 856 500

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.  
☎ 632 729 261

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.  
☎ 632 992 730

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 632 354 511

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 612 257 146

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.  
☎ 688 219 057

Zerbitzari edo harrera lanak egiteko prest nago.  
☎ 671 246 762

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut.  
☎ 626 407 923

Etxeko lanak egiteko, arropa lizatzeke, adinekoak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko prest nago. Hiru urteko eskarmentua daukat.  
☎ 688 712 075

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke.  
☎ 612 548 108

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 402 661

Orduka lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Formazioa ere bai.  
☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.  
☎ 658 464 396

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka.  
☎ 632 630 483

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Gauzez, eta ospitalean ere bai. Baserriko lanak egiteko ere prest nago. ☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.  
☎ 686 077 316

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Laguntzaile titulua daukat, eta esperientzia handia.  
☎ 943 748 899 / 685 724 861

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 632 159 486

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 631 931 030

**Eskaintzak**

DBH3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dugu.  
☎ 617 386 198

Heldu bati euskara irakasteko irakasle partikularra behar da.  
☎ 650 601 301 (Victor)

**BESTELAKOAK.....**  
Erretratu zahar batzuk topatu ditugu San Roke kalean. Udaltzaingoan utzi ditugu.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios Federación Española Administradores Comerciales Kantabria</p>  <p><b>ROSA M<sup>a</sup> PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Eraikin bateko lokal baten jabea naiz. Orain arte saltoki gisa alokatuta neukan, eta orain, taberna izateko alokatuko dut. Errentari berriak telebistako antenaren hargunea behar du, eraikin osorako orokorra dena. Nire lokalak antena hargunerik ez duela konturatu naiz, orain arte ez baita horren beharrik izan. Komunitateko presidenteari eskatu diot zerbitzu hori, eta ukatu egin dit eskatzeko eskubidea. Jakin nahi nuke ea telebista-antenen hargunea izan dezakedan.</b></p> <p>Telebista antena eraikinaren elementu komun maila duen instalazio komuna da. Horrek ez du eragozten, estatutuetan besterik arrearikusi ezean, lokalek hasiera batean ez izatea antenak ematen duen seinaleaz baliatzeko behar den instalazioa. Era berean, ez litzateke oztopo izango antena jartzea lokaletara ez iristea, ibilbidea lehen solairuan amaitu delako adibidez. Egoera hori sarri ematen da merkataritza lokaletan.</p> <p><b>GOMENDIOA. Gomendioa. Zuk planteatzen duzun eskaera eraikinaren elementu komunetako batez baliatzeko duzun eskubidea baliatzea da. Erkidegoak eskubide hori betetzeko betebeharra du, eta inork ezin dizu eskubide hori kendu. Beraz, hori egiteari uko egitea bidegabea ez izateaz gain, legez kanpokoa ere bada.</b></p> <p><b>ASESORIA GO/R</b> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	---





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Danel**, gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoena, eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Sara**, zure bigarren urtebetzean. Bereziki, Nuriaren eta Leireren partez.



Zorionak, **Ixa-peldun!** Etxeko guztien partez mila kilo zorion! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Nora, Markel eta Lukaren partez batez ere.



Zorionak, **Julen**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxekoena eta familiakoena partez. Aupa, mutil handi!



Zorionak **Gregorio**, aitxa, aititxa! 85 urte! Ondo baino hobeto ospatu genduan Bilbon. Eutsi orain arteko bizi-pozari eta berriz alkartu arte!



Zorionak etxeko **bi berritsuei** otsailaren 13an 6 urte eta 17an 10 urte beteagatik. Ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN  
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademlaelgoibar@gmail.com](mailto:akademlaelgoibar@gmail.com)



VI. URTEURRENA

## Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

*Zu joateak nahiz utzi zigun  
hutsune bat nabarmena,  
sekula ere ez dut ahaztuko  
bizi izan genuena.  
Lehen mina zena leundu da, ta  
orain senti dugun pena  
bihurtuko da zu izan zinen  
guztiaren oroimena.  
Zinen ahizpa bat ezin hobea  
barre zabal bat zuena,  
zuri eskerrak daukagu orain  
indarra eta kemena.  
Nahiz laburregia izan pasa  
genuen denbora dena,  
zu ezagutu ez bazintugu  
ez ginateke garena.*

Etxekoak



## 14 BARIKUA

**20:30** Antzerkia: ¿Qué nombre...?. Txalo Produzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 16 DOMEKA

**11:00** Zumba saio solidarioa, minbizia duten gaixoen alde. Olaizaga kiroldegian.

**16:30** Famili-antzerkia: '20.000 legoa itsaspeko zaborretan'. Herriko Antzokian.

## 19 EGUAZTENA

**19:00** Hitzaldia: 'Untzigintza XVI. mendean: Atlantikoaren erronka'. Lourdes Odriozola Oyarbidek emango du hitzaldia, Aro Modernoa, Euskal Herria mundura zabaltzen zikloaren barruan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 20 EGUENA

**17:00** Inauterietarako karrozen prestatzea. Ludotekan.

## 21 BARIKUA

**15:15** Ikastolako Euskal Inauteria. Ikastolatik Kalegoen plazara egingo dute kalejira. (Euria egiten badu, Ikastolan bertan egingo dute).

**21:30** Bideo foruma: 'Wonder woman y el profesor Marston'. Hai-zeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**23:00** Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.



### Luis Mari Iriondo Garate

2020ko otsailaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

**Betirako izango zaitugu gogoan.**

SOCIEDAD ATLÉTICA EGOTOKI



### Luis Mari Iriondo Garate

2020ko otsailaren 11n hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak





Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
14 BARIXAKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIXAKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142


\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)

<p>'1917'</p> <p>15 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS) 16 domeka: 19:00 17 astelehena: 21:30</p>	<p>'La vida secreta de Euridice Gusmao'</p> <p>(Ongarri zinekluba)</p>	<p>20 eguna: 21:30</p>
--	--	------------------------



**I. URTEURRENA**

**Iñaki Agirre Osoro**

2019ko otsailaren 12an hil zen, 62 urte zituela

**Betirako izango zaitugu gogoan.**

Adur, Maider eta gainerako senideak

**SIEMENS WT47G439ES**

**ARROPA LEHORGAILUA**



**659 €**

- A++ klase energetikoa ● 8kg-ko karga ● Bero-ponpa
- Kondentsadore autogarbigarria
- Lehen baino 35 minutuko lehortze-denbora laburragoak
- 40 minutuko express programa.
- "Outdoor" jantziarako eta mikrozuntzetako ehunetarako programa berezia
- SoftDry danborra: leuna eta delkatua zure arroparekin.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Produktuak agortuta



1958

Aste honetako erretratu zaharra Juan Galarraga *Caniquillas*ek emandakoa da. 1958. urtekoa da. Egun hartan Orio-Donostia txangoa egin zuten erretratuan ageri diren elgoibartar gazteek, eta erretratua atera zuten Igeldo gainean. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: **Zutik, ezkerretik eskumara:** Bittori Bergara, Mari Carmen Aranzeta, Isabel Urrusolo, Marisol Gurrutxaga eta Txomin Iribarren (†). **Behean, ezkerretik eskumara:** Bernardo Ezenarro, Amador Iriondo eta Juan Galarraga *Caniquillas*



## Erretratu zaharrak behar ditugu



Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- \* e-postaz bidali: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)
- \* Barreneko bulegora ekarri: Kalebarren plaza, 2





Elgoibarko Izarrak eta Ilunberri Achademiak aurkezten dute

# **Aro modernoa: Euskal Herria mundura zabaltzen**

hitzaldi-zikloa



◆ **UNTZIGINTZA XVI. MENDEAN:  
ATLANTIKOAREN ERRONKA.**

**Lourdes Odriozola Oyarbide**  
Otsailak 19, eguaztena.  
19:00etan.  
Kultur Etxean.

◆ **EMAKUMEAREN EGOERA  
NAFARROAKO KONKISTAREN  
TESTUINGURUAN.**

**Amaia Nausia Pimoulier**  
Martxoak 11, eguaztena.  
19:00etan.  
Kultur Etxean.

◆ **ARMAGINTZA XVI-XVII.  
MENDEETAN: INPERIO BAT  
SOSTENGATU ZUEN INDUSTRIA.**

**Jose Antonio Azpiazu Elorza**  
Apirilak 22, eguaztena.  
19:00etan.  
Kultur Etxean.

◆ **ELKANO ETA EUSKAL  
MARINELAK MUNDUARI  
LEHEN BIRAN.**

**Javier Elorza Maiztegi**  
Ekainak 3, eguaztena.  
19:00etan.  
Kultur Etxean.



# INAUTERIAK 2020

## OTSAILAK 20, EGUENA

17:00-19:00 KARROZEN PRESTAKETA, Ludotekan.

## OTSAILAK 21, BARIKUA

15:15-16:30 Ikastolako Euskal Inauteriak.

17:00-19:00 LUDOTEKAKO HAUR MOZORROTUEN KALEJIRA, karroza eta guzti.

23:00 Inauterietako SINUÖSEREN XXIV. KONTZERTUA, Kultur Etxeko sotoan.

## OTSAILAK 22, ZAPATUA

15:00-20:00 Inauterietako MAKILLAJE ARTISTIKOA, Gaztelekuan.

18:00-19:30 ATXUTXIKARAOKEA eta KOREOGRAFIAK.

2-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa Maalako parkean.

19:30 MOZORROEN ETA KARROZEN DESFILEA, Mauxitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin; Maalako parketik Kalegoen plazara.

00:00-02:00 Erromeria: Mugi Panderoa, Maalako parkean.

## OTSAILAK 23, DOMEKA

18:00-21:00 Dantzaldia EGUREN ORKESTRAREKIN, Jubilatuen Biltokian.

## OTSAILAK 25, MARTITZENA

16:45 MOZORROEN ELKARTZEA, Kalegoen plazan.

17:00 KANTU KOLORE HAUR BERBENA: Honolulu, Kalegoen plazan.

18:15 MAUXITXA TXARANGAREN kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

18:00-21:00 EGUREN ORKESTRAREN DANTZALDIA eta mozorroen lehiaketa.

